




**Errenteria 2025**  
plan estrategikoa · estratégico

plan estrategikoa

2025

plan estratégico



## Aurkezpena

### **Epe luzerako hausnarketa estrategikoa**

Errenteriako Udalak 2025 Plan Estrategikoa prestatzeko lana bultzatu du. Horren helburua udalerrriak etorkizunean izan beharko lukeenaren inguruko ikuspegi partekatua lortzea eta hori gauzatu ahal izateko proiektuak zehaztea da. Aldaketa prestatzeko sortu duten plana da. Plan horrek finkatuko du egungo posiziotik abiatu eta etorkizunean bete nahi duen tokia lortu ahal izateko beharrezko ibilbidea.

Plana erabakiak hartzen laguntzeko tresna da eta udalerriko ekintza helburu zehatz batzuetara bideratzea ahalbidetu behar du. Dakigunez, ikuspegi estrategikoa duten erakundeak dira erabaki zuzenak hartzeko eta hori modu eragingarrienean egiteko probabilitate handiena dutenak. Errenteria horietako bat da aurrekaririk ez duen epe luzerako hausnarketa estrategiko honi esker.

Plan Estrategikoa biltzen du orientazio nagusien testuingurua. Norabiderik gabeko garapena eta eragingarritasun txikia eragotzi ahal izateko, hurrengo 12 urteotan udalerriko jardueren gidalerroak izango diren ildo nagusiak jasotzen ditu. Udal-plangintzako beste tresna batzuk orientazio horiek oinarritzat hartuta zehaztu beharko dira. Hauxe da, hain zuzen ere, laster abian jarriko dugun Hiri Ordenamenduko Plan Orokorraren kasua. Plan horrek, beraz, udalerriko estrategia orokorrari erantzun beharko dio. Udal-jardueren koherentzia bermatu ahal izateko ordena egokia, horrenbestez, Plan Estrategikoa zehaztutakoan, HAPNa lantzea izango da. Errenterian posible izan da.

### **Testuingurua ikusita, udalerriko bokazioa berritzea komeni da**

Plan Estrategikoaren ekimena txertatuta egon den testuinguruaren ezaugarri nagusia honako hau da: egoera ekonomiko gero eta okerragoa, nabarmen ugaritu diren pobrezia eta eskasia errealeko egoeretan islatu dena. Horrek gizarte kohesionatuko eta sare soziala indartuko dituzten ekimenei

## Presentación

### **Una reflexión estratégica a largo plazo**

El Ayuntamiento de Errenteria ha promovido la realización del Plan Estratégico 2025 cuyo objetivo es lograr una visión compartida sobre lo que el municipio ha de ser en el futuro y definir los proyectos para su materialización. Es un Plan concebido para instrumentar un cambio, un Plan que va a marcar el rumbo necesario para ir desde la posición actual hasta el lugar en el que se desea estar mañana.

El Plan se concibe como un instrumento de ayuda a la decisión que ha de permitir orientar la acción municipal hacia unos objetivos definidos. Es sabido que son las organizaciones que se dotan de una visión estratégica las que con mayor probabilidad adoptan las decisiones correctas y lo hacen de la manera más eficaz; Errenteria forma ya parte de ellas a través de esta reflexión estratégica a largo plazo que no cuenta con precedente.

El Plan Estratégico representa el marco de las grandes orientaciones, las líneas maestras que deberán guiar las actuaciones del municipio en los próximos 12 años para evitar un desarrollo errático y de baja efectividad. Es desde la base de estas orientaciones como se deben definir otros instrumentos de planificación municipal. Este es el caso concreto del Plan General de Ordenación Urbana que se iniciará en breve y que, por tanto, podrá responder a la estrategia general del municipio. La secuencia idónea para garantizar la coherencia en las actuaciones municipales consiste precisamente en abordar el PGOU una vez definido el Plan Estratégico. En Errenteria ha resultado posible.

### **En un contexto que hace conveniente renovar la vocación del municipio**

El contexto en el que se enmarca la iniciativa del Plan Estratégico ha estado caracterizado por una degradación de la situación económica, reflejada en un aumento y agravamiento de las situaciones de pobreza y de precariedad real. Ello exige adoptar el compromiso de no abandonar a su suerte a ninguna

lehenetsuna ematea eskatzen du, udalerrian bizi den inor "bakarrik ez uzteko" konpromezua hartuz.

Krisiari eta krisiak pertsonengan izandako eraginari aurre egiteaz gain, Gipuzkoako hirugarren hiri nagusia izan arren Erreterriak metrópoli-hirian galdu duen zentraltasuna eta kanpora begira duen proiektzio mugatuari aurre egitea ezinbestekoa zaio udalerriri.

Jarduera ekonomikoa eta enplegua kontuan izanda, jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskasa izatea faktore murriztaile argia da garapen industrialerako. Gainera, zerbitzuen tokiko eskaintza ere mugatua da biztanleriari dagokionez eta, batez ere, kontuan hartzen badugu Erreterriak eskualde mailan nagusitasun-rola betetzen duela. Gainera, langabeziako kopuru handiek eta enplegarritasuneko maila baxuek profesional kualifikatuak atxikitzeo gaitasuna galtzeo arrisku argia biltzen dute. Horrek guztiak, ondorioz, giza kapitala galtzeo arriskua du.

Alderdi positiboari dagokionez, bestalde, udalerriak berezko nortasuna eta izaera ditu, geografikoki oso ondo kokatuta dago Donostia-Baiona korridorean eta oso ondo konektatuta dago, baliabide kultural eta natural handiak ditu, eta dinamismo, energia eta sormen arloko bizitasun aipagarriak ditu. Tokiko etorkizuneko garapenerako eta biztanleen ongizaterako kulturari garrantzi handia ematen dio udalerriak.

Testuinguru orokor hori ikusita, beharrezkoa da udalerraren bokazioa berrikustea eta bultzada emateko beharrezkoak diren baliabideak eta proiektu bultzatzaileak erakartzeko aukerak identifikatzea eta aprobetxatzea. Horri esker, baliabide eta proiektu horiek bihurtuko lirateke hiriaren dinamizazioko eta erakarpen gune.

Horren guztiaren helburu nagusia Erreterrian bizi diren pertsonen ongizatea hobetzea da, pertsona hauen babes soziala oinarritzko baldintza bezala bermatuz.

persona residente en el municipio y priorizar las intervenciones que refuercen un tejido social que cohesione la sociedad.

Además de afrontar la crisis y sus efectos en las personas, Erreterria debe afrontar una pérdida de centralidad en la ciudad metropolitana y una limitada proyección exterior a pesar de ser la tercera ciudad de Gipuzkoa.

Desde el punto de vista de la actividad económica y el empleo, la escasez de suelo para actividades económicas es un claro factor restrictivo para el desarrollo industrial y la oferta local de servicios es también reducida en relación a la población, sobre todo, considerando el papel de cabecera comarcal que corresponde a Erreterria. Además, las altas cifras de desempleo y los bajos niveles de empleabilidad entrañan un riesgo cierto de pérdida de capacidad para retener profesionales con cualificación, conllevando, en definitiva, un riesgo de pérdida de capital humano.

En el lado positivo emerge una Villa con carácter y personalidad propia, geográficamente muy bien situada en el corredor Donostia-Baiona y perfectamente conectada, con importantes recursos culturales y naturales y notable dinamismo, energía y vitalidad creativa, que otorga una alta importancia a la cultura para el desarrollo futuro local y el bienestar de sus habitantes.

Este marco general apunta a la necesidad de revisar la vocación de la Villa e identificar y aprovechar las oportunidades para atraer proyectos atractivos y los recursos requeridos para su impulso, transformándolos en focos de atracción y de dinamización de la ciudad.

Todo ello con la finalidad última de lograr la mejora del bienestar de las personas que viven en Erreterria, velando por la garantía de su protección social como condición básica.

**Julen Mendoza Pérez**  
Erreterriako Alkatea  
Alcalde de Erreterria



# Errenteria 2025

plan estrategikoa · estratégico

## 2025 Plan Estrategikoa · Plan Estratégico 2025

### aurkibidea

### índice

<b>A. PLAN ESTRATEGIKOAREN PREMISAK ETA EDUKIA.....</b>	<b>5</b>
PREMISAK .....	6
PLAN ESTRATEGIKOAREN EDUKIA .....	8
<b>B. MARKO ESTRATEGIKOA .....</b>	<b>10</b>
2025 ERRETERIA: IKUSPEGIA ETA BALIOAK .....	11
ERRONKA ESTRATEGIKOAK.....	12
<b>C. EKINTZA PLANA.....</b>	<b>31</b>
<b>D. PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....</b>	<b>156</b>
JARDUERA PLANAREN KRONOGRAMA.....	157
JARDUERA PLANA GARATZEKO LANEAN SARTU BEHARREKO ERAGILE NAGUSIAK.....	159
JARDUERA PLANAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK.....	163
PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENERAKO TRESNAK.....	165
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>170</b>
METODOLOGIA.....	171
PARTE-HARTZE ADIERAZLEAK .....	176
ERRETERIA 2025 SAREAN.....	177
PARTE-HARTZAILEAK.....	178


<b>A. PREMISAS Y CONTENIDO DEL PLAN ESTRATÉGICO.....</b>	<b>5</b>
PREMISAS .....	6
CONTENIDO DEL PLAN ESTRATÉGICO .....	8
<b>B. MARCO ESTRATÉGICO .....</b>	<b>10</b>
ERRETERIA 2025: VISIÓN Y VALORES .....	11
RETOS ESTRATÉGICOS .....	12
<b>C. PLAN DE ACTUACIÓN .....</b>	<b>31</b>
<b>D. SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO.....</b>	<b>156</b>
CRONOGRAMA DEL PLAN DE ACTUACIÓN.....	158
PRINCIPALES AGENTES A IMPLICAR PARA EL DESARROLLO DEL PLAN DE ACTUACIÓN.....	159
CARACTERIZACIÓN ECONÓMICA DEL PLAN DE ACTUACIÓN .....	163
INSTRUMENTOS DE SEGUIMIENTO DEL PLAN ESTRATÉGICO .....	165
<b>ANEXOS .....</b>	<b>170</b>
METODOLOGÍA .....	171
INDICADORES DE PARTICIPACIÓN .....	176
ERRETERIA 2025 EN LA WEB .....	177
PARTICIPANTES .....	178



**Errenteria 2025**  
plan estrategikoa · estratégico

A.

**Plan Estrategikoaren  
premisak eta edukia**  
Premisas y contenido  
del Plan Estratégico





## Premisak

Plan Estrategiko hau prestatzeko egindako hausnarketa-prozesuak hurrengo premisa hauek bete ditu:

- Udalerriko **orientazio orokorrak eta lehenasunezko erronkak** finkatzea 2025eko epemuga kontuan hartuta. Ahalegina, beraz, esku hartzeko esparru esanguratsuenak aukeratzeko oinarritu dugu.
- Udalerrian inpaktu orokorra duten **proiektu egituratzaileak** identifikatzea; hau da, udalerriko biztanle guztiei mesede egiteko ezaugarria betetzen dutenak.
- **Udalak eragile bultzatzaileen eta proiektuen etorrera, instalazioa eta mantentzea erraztu** behar du. Horrek izan behar du guztiaren abiapuntua. Erakundearen helburua Errenteriako jendeari bizi-kalitate altua eta enplegua sortzea eta mantentzen laguntzea da.
- Metodologia **parte-hartzailea** aplikatzea honako lan hauek egiteko garaian partekatutako erantzukizunetik abiatuta: arazoak definitzea, helburuak identifikatzea eta horiek lortzeko tresna eta ekintzak bilatzea. Horren guztiaren helburua eragile ekonomiko eta sozialen eta, oro har, biztanleriaren arteko adostasuna bultzatzea izango da eta horrekin prozesuari eta biztanleriari, oro har, balio erantsi argia eskainiko zaio.
- Sinesgarria izatea eta **plangintzako itundutako tresna** osatzea. Barneko eta kanpoko gorabeheren eta jardueren arteko koherentzia bermatzera zuzenduta egongo da tresna hori.
- **Beste plan batzuekiko egituraketa** bilatzea (Agenda 21, Ondare Naturala hobetzeko udal-estrategia, Errenteriako Bioaniztasunaren Ekintza Plana, Enplegurako Eskualdeko Plana, berdintasun Plana, Oinezkoen eta Txirrindularien Mugigarritasuneko Plana, Euskara Biziberritzeko Plana, Merkataritza

## Premisas

El proceso de reflexión acometido para la elaboración del presente Plan Estratégico ha partido de las siguientes premisas:

- Establecer las **orientaciones generales y los retos prioritarios** del municipio en el horizonte de 2025. El esfuerzo se ha focalizado, por tanto, en la selección de las áreas de intervención más relevantes.
- Identificar **proyectos estructurantes**, con impacto general en el municipio, es decir, con la cualidad de beneficiar a las y los habitantes del municipio en su conjunto.
- Partir de la base de que **el Ayuntamiento debe favorecer la llegada, instalación y mantenimiento de agentes promotores y proyectos**. El propósito institucional es ayudar a la gente de Errenteria a crear y mantener su empleo y una alta calidad de vida.
- Aplicar una metodología **participativa**, desde la responsabilidad compartida en la definición de problemas, identificación de metas y búsqueda de instrumentos y acciones para alcanzarlos, que fomente la búsqueda de consenso de los agentes económicos y sociales y la población en general, aportando con ello un claro valor añadido al proceso y a la población en general.
- Ser creíble y constituir un **instrumento concertado de planificación**, orientado a asegurar una coherencia entre sus actuaciones y las circunstancias internas y externas.
- Buscar la **articulación con otros Planes** (Agenda 21, Estrategia municipal para la mejora del Patrimonio Natural Plan de Acción de la Biodiversidad de Errenteria, Plan Comarcal de Empleo, Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres, Plan de Movilidad Peatonal y Ciclista, Plan de Revitalización del Euskara, Plan Especial de Revitalización del Comercio, Plan Territorial

Suspertzeko Plan Berezia, Lurraldeko Plan Partziala, Immigrazioa Erreterian: Diagnostikoa eta esku-hartze politikak...).

- **Zeharkakotasunaren** kultura azpimarratu beharra dago bereziki sektore eta erakunde arteko konexioen bilaketan. Plana sektoreen eta eragileen arteko trukeak ahalbidetzeko oinarri-plataforma da. Horri esker, sektore mailako optikak ondoan jartzean oinarritutako ikuspegi mugatuagoa gainditu nahi dugu.
- **Denboran bilakaera izatea** eta errealitate sozioekonomikoan aldatzen ari diren gorabeheretara moldatzea aurrez ikusitako emaitzak lortu ahal izateko baldintza gisa.
- **Ekonomiaren eta finantzen ikuspegitik bideragarria** izatea eta Planaren esparruan gauzatu ezin diren planteamenduak eskatzen dituzten ekimenak baztertzea. Elementu mesedegarria izan daiteke herritarren lankidetzaz izatea egin beharrekoa gauzatze aldera.
- **Epe ertainerako eta luzerako begirada antolatzea** (hamabi urte) epe laburrerako helburuak zehaztu eta ekintzak diseinatuta. Horri esker, gaur has gaitezke bihar bihurtu nahi duguna eraikitzen.
- Ahalik eta **atxikimendu sozial handiena** lortzea. Herritar gehienentzat desiragarria eta sinesgarria den agertokia zehaztu beharko du epe ertainera begira horiek gauzatzeko beharrezko ahaleginek bultzada kolektiboa izateko moduan.
- **Etorkizunerako proiektu egituratzaileetara bideratutako finantzaketa-iturriak** zuzentzeko balio beharko du. Horien atzean egongo dira partekatutako helburu eta lehentasunak. Ongizatea garapen ekonomikoaren mende dago eta beharrezkoa da udalerriak horiek bultzatzeko beharrezko finantza-baliabideak izatea.

Hitz gutxitan esanda, Plan Estrategikoak Erreteriarako biztanleek **egun bizi nahi duten testuingurua eta udalerriak etorkizunera begira izango duena** zehaztuko du.

Parcial, La inmigración en Erreteria: Diagnóstico y políticas de intervención...).

- Poner el acento en la cultura de la **transversalidad**, en la búsqueda de conexiones intersectoriales e interinstitucional. El Plan se constituye en una plataforma-base facilitadora de intercambios entre sectores y agentes, superándose así un enfoque más limitado, basado en la simple yuxtaposición de ópticas sectoriales.
- **Evolucionar en el tiempo**, adaptarse a las circunstancias cambiantes de la realidad socioeconómica, como requisito para alcanzar los resultados esperados.
- Ser **viable desde el punto de vista económico-financiero**, descartándose aquellas iniciativas que pudieran exigir planteamientos inabordables en el horizonte del Plan. Un elemento favorable puede ser el contar con la cooperación de la ciudadanía para su materialización.
- **Articular una mirada de medio y largo plazo** (doce años) con la definición de objetivos y diseño de acciones a corto plazo permitiendo construir desde hoy lo que se quiere llegar a ser mañana.
- Lograr la **máxima adhesión social**, que dibuje un escenario a medio plazo que resulte creíble y deseable para la mayoría de la ciudadanía de modo que los esfuerzos necesarios para su ejecución cuenten con el impulso colectivo.
- Servir para **canalizar fuentes de financiación hacia proyectos estructurantes, de futuro**, detrás de los cuales subyacen objetivos y prioridades compartidas. El bienestar está condicionado al desarrollo económico y es preciso que el municipio cuente con los recursos financieros necesarios para su impulso.

En definitiva, un Plan Estratégico para que la población de Erreteria **desea vivir ahora y tenga en el municipio su horizonte de futuro**.

## Plan Estrategikoaren edukia

Plan hau Errenteria<sup>1</sup> udalerrian landutako hausnarketa estrategikoaren prozesuaren amaiera dela esan dezakegu. Udalerraren etorkizuneko ikuspegia eta hura errealitate bihurtzeko modua biltzen ditu; hau da, gaur egungo Errenteriaren eta etorkizunerako nahi dugun Errenteriaren arteko aldea gainditzeko beharrezko ibilbidea egiteko ildo estrategikoak jasotzen ditu.

Eduki eta egiturari dagokienez, sarrera moduan aurkeztu dugun lehen kapitulu honetaz gain (Planaren premisak jasotzen ditu), bigarren kapituluak 2025. urterako erreferentziatzko Testuinguru Estrategikoa garatuko dugu (ikuspegia, Balioak, Erronkak eta Ildo Estrategikoak).

Testuinguru Estrategikoa aurkeztutakoan, hirugarren kapituluak bilduko ditugu proposatutako ildo estrategiko horiek. Ildo estrategiko bakoitzak, aldi berean, garatzeko proposamen bat edo gehiago biltzen ditu. Horiek osatzen dute Ekintza Plana.

Garapeneko proposamen horiek gaur egungo unean kontuan hartuta proposatutako aukerak dira. Hori dela eta, Plan Estrategiko honek (2013-2025) aurrera egiten duen bitartean, aukera horiek gauzatu ahal izateko malguak izan gaitezke edukiari zein garapenari dagokionez.

Laugarren kapituluak Plan Estrategikoaren Jarraipenerako eta Ebaluaziorako elementuak jasotzen ditu; hau da, Jarduera Planaren Kronograma, inplikaturako eragile nagusiak, beharrezkoak diren finantza-konpromisoen izaera ekonomikoari begira

## Contenido del Plan Estratégico

El presente Plan supone la culminación del proceso de reflexión estratégica abordada en el municipio de Errenteria<sup>2</sup> y recoge la visión de futuro de la Villa, así como el modo de hacerla realidad, es decir, las líneas estratégicas para recorrer el camino necesario para salvar la distancia entre la Errenteria de hoy y la Errenteria que se desea para mañana.

En lo que respecta a su contenido y estructura, además de este primer capítulo introductorio, en el que se recogen las premisas del Plan, el segundo capítulo desarrolla el Marco Estratégico de Referencia de cara al año 2025 (Visión, Valores, Retos y Líneas Estratégicas).

Una vez presentado el Marco Estratégico, el tercer capítulo recoge la formulación de las Líneas Estratégicas planteadas. Cada línea estratégica contiene, a su vez, una o varias propuestas de desarrollo las cuales vienen a configurar el Plan de Actuación.

Estas propuestas de desarrollo han de entenderse como opciones planteadas desde el momento actual, y por tanto, su materialización a lo largo del periodo de avance del presente Plan Estratégico (2013-2025) podrá admitir flexibilidad tanto en su contenido como en su desarrollo.

El cuarto capítulo recoge los elementos de Seguimiento y Evaluación del Plan Estratégico, es decir, el Cronograma del Plan de Actuación, los principales agentes implicados, la tipología de las acciones previstas en cuanto a la naturaleza

<sup>1</sup> Txosten hau prestatu aurretik, "Errenteriaren Diagnostiko Estrategikoa" (2013ko urtarrila) dokumentua egin genuen; bertan, udalerraren egungo egoeraren aurreikuspen orokorra eta laburtua eskaintzen da eta kezka nagusiak lantzen dira, baita etorkizunari aurre egiteko gaitasunak ere.

<sup>2</sup> Como paso previo al presente informe, se ha elaborado el documento "Diagnóstico Estratégico de Errenteria" (Plan Estratégico errenteria 2025, enero 2013), en el que se ofrece una perspectiva general y sintética de la situación actual del municipio, y se abordan las principales preocupaciones existentes, así como sus capacidades para afrontar el futuro



aurrez ikusitako ekintza motak (kudeaketa eta inbertsioetarakoak) eta Plan Estrategikoari jarraipena egiteko tresnak.

Azkenik, Eranskinetan hausnarketa estrategikoaren prozesu osoan aplikatutako metodologiaren deskribapena, partaidetza-prozesuaren adierazleak eta Errenteria 2025 Plan Estrategikoa egiteko prozesuan parte hartu duten guztien zerrenda daude jasota.

económica de los compromisos financieros requeridos (de gestión o inversión) y los Instrumentos de Seguimiento del Plan Estratégico.

Finalmente, en Anexos se incluye una breve descripción de la metodología aplicada a lo largo de todo el proceso de reflexión estratégica, los indicadores del proceso participativo y la relación de las personas participantes en todo el proceso de elaboración del Plan Estratégico Errenteria 2025.




**Errenteria 2025**

plan estrategikoa · estratégico

B.

**Marko Estrategikoa**

**Marco Estratégico**



## 2025 Errenteria: Ikuspegia eta Balioak

2025. urtean, Errenteriako Ikuspegia ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonak bizi diren lurraldearena izango da: **solidarioak, ikasten eta berritzen dutenak, eta kalitatezko habitatean, garapen sozial eta ekonomiko arduratsua ahalbidetuko duten baliabideetan oinarritutakoa. Bertako bizi-kalitateari esker, pertsonak erakartzen eta atxikitzen dituen hiria.**

Prozesu honen emaitzak zehazten du berezko Balio bereizgarrietan oinarritutako ereduak:

- **Partaidetza soziala, komunitatearen dinamismoa eta proiektu egituratzaileen inguruko mobilizazioa**
- **Lankidetzako eta elkarlaneko ereduak**
- **Arlo tradizional eta artisautzakoa arlo garaikidearekin-esperimentalarekin uztartzea**
- **Tokiko baliabideak eta giza, ekonomia eta ingurumen arloko potentziala erabiltzea**

Gainera, elementu unibertsalak izatea. Hauek, adibidez:

- **Elkartasuna eta elkarren arteko erantzukizuna**
- **Emakumezkoak eta gizonezkoak inplikatzeko**
- **Elkarbizitza, eta pertsonak eta desberdintasunak errespetatzea**
- **Norberaren gaitasunekiko konfiantza**
- **Irekiera, berrikuntza eta kalitatea**

## Errenteria 2025: Visión y Valores

La Visión de Errenteria en 2025 es la de un **territorio habitado por personas solidarias, que aprenden, innovan y que apoyado en sus recursos favorece un desarrollo social y económico responsable, en un hábitat de calidad. Una ciudad cuya calidad de vida atrae y retiene a las personas.**

El resultado de este proceso configura un modelo que se sustenta en Valores distintivos propios:

- **Participación social, dinamismo de la comunidad y movilización en torno a proyectos estructurantes**
- **Modelo colaborativo y cooperativo**
- **Unión de lo tradicional y artesanal con lo contemporáneo-experimental**
- **Utilización de los recursos locales y del potencial humano, económico y medioambiental**

Además de contar con elementos de alcance universal, como:

- **Solidaridad y corresponsabilidad**
- **Implicación de mujeres y hombres**
- **Convivencia y respeto a las personas y a las diferencias**
- **Confianza en las capacidades propias**
- **Apertura, innovación y calidad**

## Erronka Estrategikoak


2025 Erreterria Estrategia elkarrekin lotuta dauden 6 erronka estrategikoren inguruan antolatuta dago. Pertsona guztien ongizatea lortzera zuzenduta daude denak.

- 1. erronka: hiri solidarioa, aktiboa, kohesionatutakoa eta integratzailea.
- 2. erronka: Kultura, sormena eta pertsona guztien bizitza osoko ikaskuntza bultzatzen dituen hiria.
- 3. erronka: Bizi, lan egin eta gozatzeko hiria
- 4. erronka: Eraldatutako eta dibertsifikatutako ekonomia duen hiria, enplegua sortzen duena eta gizarte arloko enpresa-ereduak bultzatzen dituena
- 5. erronka: Gune naturalei balioa ematen dien eta ingurune iraunkorra bultzatzen duen hiria.
- 6. erronka: konektatutako hiria, irekia eta kanpoko proiektzioaren protagonista dena.

## Retos Estratégicos

La Estrategia Erreterria 2025 se articula en torno a 6 Retos Estratégicos, interrelacionados, y dirigidos a la consecución del bienestar de todas las personas.

- Reto 1: Ciudad solidaria, activa, cohesionada e integradora
- Reto 2: Ciudad que promueve la cultura, la creatividad y el aprendizaje a lo largo de la vida de todas las personas
- Reto 3: Ciudad en la que vivir, trabajar y disfrutar
- Reto 4: Ciudad con una economía transformada y diversificada, generadora de empleo e impulsora de modelos empresariales sociales
- Reto 5: Ciudad que pone en valor los espacios naturales y potencia un entorno sostenible
- Reto 6: Ciudad conectada, abierta y protagonista de su proyección exterior



## 1. ERRONKA: Hiri solidarioa, aktiboa, kohesionatutakoa eta integratzailea

### Pertsonen oinarrizko beharrak asebetetzeko konpromisoa

Elkartasunaren balioaren eta justizia sozialaren printzipioaren arabera, Errenteriak biztanleria osoaren ongizatea bermatzeko, txirotasun mailak gutxitzeko eta udalerrian bizi den inor "bakarrik ez uzteko" lan egingo du.

Errenteriak krisiari eta krisiak pertsonengan izandako eraginari aurre egin behar die eta, horretarako, herritarren oinarrizko beharrak asetzen direla bermatzeko konpromisoa hartu du, batez ere egoera zailenean dauden taldeei erantzunez (besteak beste, langabezia denbora luzea daramaten 45 urtetik gorakoak, prestakuntzarik gabeko etorkinak, lan-esperientziarik gabeko emakumeak...). Era berean, behar sozialen arloan udalerrian esku hartzen duten eragile guztien esku-hartze itunduaren eta eragingarriaren alde lan egingo du. Horrez gain, berrikuntza sozial guztiak gizarte gizatiarragoaren eta solidarioagoaren alde lan egitea eta horretan laguntzea ahalbidetuko du.

### Elkarteetako mugimendua sustatu eta arazoak "behetik gora" konpontzeko apustu egitearen erronka

Jarduera bazterketa-egoera berrietatik prebenitu nahi du. Horretarako gizarte osoaren laguntza eta konpromisoa behar dugu. Gizartea mugiarazi egin behar dugu gizarteko eta komunitateko ekimenen baitako jarduerak sustatzu; hala nola *auzolan* eta herritarren lankidetzak. Horretarako, gizarte-laguntza informaleko sareak indartu behar ditugu asistentzia formalaren osagarri izan daitezten.

Bizitza kolektiboa antolatzen pertsonak udalerriarekin duten konpromisoaren garrantzia aitortzea eta gizarte

## RETO 1: Ciudad solidaria, activa, cohesionada e integradora

### El compromiso de satisfacer las necesidades básicas de las personas

En coherencia con el valor de la solidaridad y el principio de la justicia social, Errenteria trabajará para asegurar el bienestar de toda la población, reducir sus niveles de pobreza y no "abandonar" a su suerte a ninguna persona residente en el municipio.

Errenteria debe afrontar la crisis y sus efectos sobre las personas y para ello asume el compromiso de garantizar la cobertura de las necesidades básicas de la población, respondiendo particularmente a los colectivos más vulnerables (actualmente integrados, entre otros, por personas paradas de larga duración de más de 45 años, personas inmigrantes sin cualificación, mujeres sin experiencia laboral...). Así mismo, velará por una intervención concertada y eficaz de todos los agentes que intervienen en el municipio en la esfera de las necesidades sociales. Favorecerá, también, toda innovación social que pueda contribuir y actuar a favor de una sociedad más humana y solidaria.

### El reto de reforzar el movimiento asociativo y apostar por la resolución de los problemas "de abajo a arriba"

Considera, además, enfocar su actuación en la esfera de la prevención de nuevas situaciones de exclusión. Ello requiere contar con el apoyo y el compromiso de toda la sociedad, movilizándola a través de la promoción de actuaciones enmarcadas en la iniciativa social y comunitaria, como el *auzolan* o cooperación ciudadana, potenciando las redes de apoyo social informal como complemento de la asistencia formal.

Se parte del reconocimiento de la importancia del compromiso de las personas con su municipio en la



inklusiboetan zeregina sustatzea beharrezkoa dela jabetzea da abiapuntua. Hala, bizitza kolektiboaren intentsitatea bertako biztanleen ingurunearekiko eta habitatarekiko duten interesaren isla bihurtzen da, eragin-eremuaren ekintzaile eta onuradun diren heinean duten inplikazio aktiboaren isla. Ondorioz, udalerrriak bere borondateza-oinarria sustatu, mantendu eta babestuko du garapen pertsonalaren eta laguntza sozialaren tresna gisa, eta konfiantzan oinarritutako elkarteetako mugimendua sustatuko du. Planteamendu horrek, gainera, izatearen sentimendua sustatzen lagunduko du.

### **Emakume eta gizonen berdintasuna, justizia kontua**

Arlo sozialean kohesio sendo eta iraunkorra izateko, Errenterriak sexuaren arabera ezarritako rola eta estereotipoak desagerraraztea nahi du, lanean eta erabakiguneetan aukera berdinak izatea eta sexuagatik egiten diren bazterkeria mota guztiak ezabatzea; emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea, familietan erantzunkidetasuna sustatzea, eta abar.

Emakumeen aurkako indarkeria arazo sozial larria da; askatasuna, bizikidetzatza eta ongizatea galarazten baititu. Horregatik, Errenterriak emakumeen askatasuna eta autonomia, zentzurik zabalenean hartuta, bermatuko dituen herria izan behar du. Rola eta estereotipoak baldintzatzen ez duten gizarteak herritar askeak egiten baititu, emakume zein gizon, pertsonen garapen osoa bermatuz.

### **Euskara, kohesio sozialerako gako**

Euskara gizarte osoarena da, pertsona guztiei dagokien eta kohesio sozialerako ezinbesteko osagaia da. Pertsonen jatorria eta kultura-atxikipena edozein direla ere, espazio publikoetan eta zenbait esparru pribatutan erabiltzeko hizkuntza partekatu eta komuna da euskara eta euskararen erabilera bateragarria da

organización de la vida colectiva y de que es preciso potenciar su papel en sociedades inclusivas. La intensidad de la vida colectiva se convierte así en un reflejo del interés de sus habitantes por su entorno, por su hábitat, de su implicación activa en tanto que protagonistas y personas beneficiarias de su esfera de influencia. El municipio, por tanto, suscitará, mantendrá y protegerá su base de voluntariado como instrumento de desarrollo personal y de contribución social, reforzando el movimiento asociativo basado en la confianza. Este planteamiento contribuirá, además, a fortalecer el arraigo y sentimiento de pertenencia.

### **La igualdad de mujeres y hombres, una cuestión de justicia**

Para ser una ciudad cohesionada socialmente de manera sólida duradera, Errenteria desea que desaparezcan los estereotipos y roles asignados en función del sexo, que existan las mismas oportunidades en el empleo y en las esferas de decisión, que se eliminen todas las formas de discriminación por razón de sexo, que desaparezca la violencia contra las mujeres, que se promueva la corresponsabilidad en la vida familiar.

La violencia contra las mujeres constituye un grave problema social puesto que impide la libertad, la convivencia y el bienestar. Por ello, Errenteria ha de ser un pueblo que garantice la libertad y autonomía de las mujeres en su sentido más amplio. Las sociedades no condicionadas por roles y estereotipos logran personas libres garantizando su completo desarrollo.

### **El euskara, un elemento clave para la cohesión social**

El euskara pertenece a toda la sociedad, concierne a todas las personas y es un componente esencial de la cohesión social. Efectivamente, el euskara se ofrece, independientemente del origen o de la adscripción cultural de las personas, como lengua compartida o

euskara ikasten dutenen ama-hizkuntzaren erabilerarekin.”

Errenteriak euskaraz bizitzeko aukera guztiak eskaini behar ditu, euskaraz hitz egiten duten guztiak erabili dezaten sustatu behar da eta gero eta gehiagok euskaraz hitz egin dezaten saiatu behar da.

Euskararen erabilerak eremu formaletik harago joan eta arlo ekonomikoa eta soziala ere hartzea da lehentasuna. Euskaldunei euskara erabiltzea eta ez dakitenei ikastea edo hobetzea eskatuko dieten diskurtso eta estrategia berriak sortzea eta gizarteratzea ere beharrezkoa da.

### **Aniztasuna, hiri bizia eta ilusioz betea lortzeko aprobetxatu beharreko aberastasuna**

Udalerrri integratzailea den aldetik, Errenteriak konpromisoa hartu du irekitasun eta tolerantzia handiagoa izateko gizartea prestatzeko, horretarako elkar ezagutzea eta udalerriko kultura, balio eta xedeak etengabe elkarri hurbiltzea sustatuz, bizikidetzaren demokratikoaren eta herritarren erantzukizunen alde eginez.

común a utilizar en los espacios públicos o en determinados ámbitos privados, cuyo uso es compatible con el de la lengua materna de quienes adoptan el euskera.

Errenteria puede y debe posibilitar vivir en euskara, favoreciendo su uso por parte de todas aquellas personas que lo conocen e impulsando la extensión de su conocimiento de un número cada vez mayor de personas.

La prioridad es que el uso del euskara vaya más allá del ámbito formal e impregne la vida económica y social, además de crear y socializar nuevos discursos y estrategias que interpelen tanto a los hablantes a usar el euskera como a los no hablantes a mejorar o alcanzar su conocimiento.

### **La diversidad, una riqueza a aprovechar para lograr una ciudad vital e ilusionada**

Como ciudad integradora, Errenteria se compromete a preparar a la sociedad para una mayor apertura y tolerancia, propiciando la búsqueda del conocimiento mutuo y el acercamiento constante de las distintas culturas, valores y aspiraciones que conviven en la Villa, favoreciendo la convivencia democrática y la responsabilidad cívica.

## 2. ERRONKA: Kultura, sormena eta pertsona guztien bizitza osoko ikaskuntza bultzatzen duen hiria

Udalerrian finkatutako kultura, ongizatearen motorra, dinamismo ekonomikoa eta erakarpina

Errenteriak, kultura eta sormena erabiliz, norbere identitatearen ardatza osatzea erabaki du, bereizketako elementu nagusia eta pertsonak elkartzeko leku aparta.

Errenteriak, eremu naturala den heinean, kulturen eta sormenean babestu behar du; izan ere, diagnostikoan bistakoak diren indargune nabariak ditu: Kulturalki kreatiboak eta aktiboak diren pertsonak biltzen ditu, kultura-dinamismo handia erakusten du, baita kalitatearen eskaintza ere, kultura-sentsibilizazio eta parte-hartze handia nabari da, kokapen pribilegiatua du ekimen kultural eta kreatiboetarako, eta garrantzi eta bereizgarritasun handiko ekimenak eta proiektuak ditu.

Gainera, kultura dinamizazio ekonomikoaren eta ekimen sustatzaileen erakarpenerako zutabe izan daiteke. Europar Batasunak kultura eta sormenaren aldeko apustu argia egiten du, enplegua sortzeko garaian potentzial handiena duen sektoreetako bat delako; izan ere, lanaren faktorean oso sektore intentsiboa da eta duen osagai kreatiboarengatik berrikuntzaren gainean duen inpaktua ere nabarmendu behar da.

Baliabide kulturala Errenteriaren garapeneko gakoetako bat bihurtzea da estrategiaren eraginetako bat. Sektore kulturean aintzat hartu behar da, ekoizpen katearen (produktu kulturalak, dekoratuak, jantziak, ile-apaindegia, makillajea, edizioa eta inprenta, digitalizazioa,

## RETO 2: Ciudad que promueve la cultura, la creatividad y el aprendizaje a lo largo de la vida de todas las personas

La cultura, motor de bienestar, dinamismo económico y atracción, que se asienta en las fortalezas del municipio

Errenteria ha decidido hacer de la Cultura y la Creatividad un pilar de identidad propia, un elemento central de diferenciación y un terreno fértil para la cohesión de las personas.

Errenteria debe apoyarse en la cultura y la creación como espacio natural donde cuenta con fortalezas destacables evidenciadas en el Diagnóstico: concentra personas creativas y activas culturalmente, muestra un notable dinamismo cultural y una oferta de calidad, se constata una elevada sensibilización y participación cultural, dispone de una localización privilegiada para las iniciativas culturales y creativas y cuenta con iniciativas y proyectos de gran relevancia y singularidad.

Además, la cultura puede erigirse en vector de dinamización económica y atracción de iniciativas emprendedoras. La Unión Europea apuesta claramente por la cultura y la creatividad como uno de los sectores con más potencial a la hora de crear empleo, dado que es un sector muy intensivo en factor trabajo, destacando también su impacto sobre la innovación por el importante componente creativo.

El impacto de la estrategia consistente en hacer del recurso cultural una de las claves de desarrollo de Errenteria se habrá de apreciar en el propio sector cultural, considerando todos los elementos de la cadena de producción (productos culturales, decorados, vestuario, iluminación, peluquería,

komunikazioa...)elementu guztiak kontuan hartuta; baita kulturarekin zerikusia duten beste alor batzuetan ere, turistikoa eta komertzialean esate baterako, kanpora begira udalerraren irudi erakargarria ematen saiatuz.

Azken finean, kultura eta garapen sozioekonomikoa bateratuko den hiria osatzea da helburua, betiere, udalerrian bizi diren pertsonen bizitzeko moduan eragin positiboa izan dezan. Ildo horretatik, Erreteriak kulturaren sarbidea edo gizarteratzea hobetzeko egingo du lan; izan ere, herritarrak kulturaren erdigunean kokatu nahi ditu eta herritarrek kontsumitu eta izaera sortzailea izan dezaten nahi du Erreteriak; sormen artistikoa finkatu eta berrikuntzaren alde egin; proiektu kultural-artistikoen sarea sustatu eta hiri-ingurune ko kultura-kalitatea hobetu (ondare arkitektonikoaren balioa handituz, turismo kulturalaren garapena estimulatuz, Erreteria zirkuitu kulturaletan, trebakuntza artistikoan, artisten konpainietan txertatuz).

### **Gaitasun handiena duten pertsonak, bizitzan zehar ikasten dutenak, gizarte hobearen oinarria**

Ezagutzan murgilduta, Erreteriak pertsona guztientzako aukerak eskaini nahi ditu eta ikaskuntza iraunkorraren kultura sustatu nahi du modu eraginkorrean, kulturarekiko jarrera aktiboa eta aldekoa sortuz eta eskaera sustatuz.

Gehiago eta hobeto trebatutako pertsonak izatea, gaitasunak ez ezik konpetentziak ere badituztenak, hauek esate baterako: sormena, izaera kritikoa, empatia eta abar. Gai garrantzitsua da enpleagarritasunaren, gizarte-txertaketaren eta garapen iraunkorraren aldetik.

Gizarte osoaren gaitasuna hobetzea da helburua, herritar aktiboak bultzatuz. Erreteria ezagutza sortzeaz gain, prestakuntzako, hedapeneko eta ezagutzaren transmisioko sistema ona bermatzeaz arduratuko da. Bizitzan zehar ikasteko aukerak

maquillaje, edición e imprenta, digitalización, comunicación...), y, también, en otros ámbitos relacionados con la cultura como es el turístico y comercial, contribuyendo a proyectar al exterior una atractiva imagen del municipio.

El propósito, en definitiva, es configurar una ciudad donde la cultura y el desarrollo socioeconómico se armonicen para ofrecer un impacto positivo en el modo de vida de las personas que viven en el municipio. En este contexto Erreteria trabajará por la mejora del acceso o socialización de la cultura, que busca situar a la ciudadanía en el centro de la cultura e impulsar su implicación como consumidora y como creadora; consolidar la creación artística y velar por su renovación; y reforzar la red de proyectos culturales-artísticos y mejorar la calidad cultural del entorno urbano (revalorizando el patrimonio arquitectónico, estimulando el desarrollo del turismo cultural, favoreciendo la inclusión de Erreteria en los circuitos culturales, la formación artística, la acogida de compañías de artistas).

### **Personas más capacitadas, que aprenden a lo largo de toda la vida, el fundamento de una sociedad mejor**

En la órbita del conocimiento, Erreteria pretende ofrecer oportunidades para todas las personas y busca fomentar de manera decidida la cultura del aprendizaje permanente, generando una actitud activa y favorable hacia él y promoviendo su demanda.

Contar con personas más y mejor formadas, que cuentan no sólo con capacidades sino también con competencias como la creatividad, el espíritu crítico, la empatía, etc. es una cuestión relevante desde el punto de vista de la empleabilidad, la inclusión social y el desarrollo sostenible.

El objetivo es elevar la capacitación de toda la sociedad impulsando una ciudadanía activa. Erreteria se va a preocupar no sólo de generar conocimiento, sino de asegurar un buen sistema de formación, difusión y transmisión de este

eskainiko ditu, ikastetxetik hasi eta erretiroko adinera arte, eta arreta berezia jarriko du eskola uzte goiztiarra saihesteko; izan ere, gai hori eskola-bizitzari, familiari, eta bizitza sozial eta ekonomikoari lotuta dago eta funtsezkoa da gizarte-bazterketa saihesteko eta udalerraren aurrerapena bermatzeko.

conocimiento. Ofrecerá oportunidades para el aprendizaje lo largo de su vida, desde la escuela hasta después de la edad de jubilación y pondrá un énfasis especial en atajar y prevenir el abandono escolar prematuro, cuestión que vinculada a factores ligados a la vida escolar, familiar, social y económica, resulta clave para prevenir la exclusión social y asegurar el progreso del municipio.



### 3. ERRONKA: Bizi, lan egin eta gozatzeko hiria

**Herritarrentzako hiri erakargarria dena, bisitarientzat ere erakargarria izango da**

Errenteria ez baldin bada herritarrak erakartzeko gai, ez da kanpoko bisitariak erakartzeko gai izango, edo beste era batera esanda, bertako jendearentzat Errenteria erakargarria baldin bada, bisitan datozen pertsonentzat ere hala izango da.

Ekimen ekonomikoek eta pertsonen lehen baino aukera gehiago dute non kokatu nahi duten aukeratzeko; arreta erakartzea gero eta zailagoa da. Etorkizunean, ongizate ekonomiko eta pertsonalerako baldintza egokiak eskaintzen dituztenek erakarriko dituzte pertsona eta intereseko proiektuak.

Errenteria bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko leku ona bihurtzea da helburua. Hori dela eta, bizitza-kalitate ona eskaini behar du; bizitza-kalitate onaz ingurune osasungarria eta erakargarria eskaini behar du, baita zerbitzuen gama osoa ere. Horrela, eskualdeko hiri nagusia izango da, eta jarduera kultural eta turistikoarekin batera, udalerriaren bizitasunerako eta hazkunderako eskatutako enpleguak bermatuko ditu.

**Etxebizitzak birgaitzea bizitza-kalitaterako gai garrantzitsua da**

Etxebizitza da herritar berriak erakarri edo lehengoei eusteko osagai garrantzitsuenetako bat. Hala eta guztiz ere, badirudi etxebizitza lortzeko zailtasuna dela bizitoki gisa udalerriaren erakargarritasuna galtzearekin lotutako arazoaren ardatzetako bat. Ildo horretatik, egindako gogoeta estrategikotik ondorioztatzen da datozen urteetara begira beharrezkoa dela etxebizitzarako sarbidea hobetzeko ekintzak gaitzea edota erraztea.

### RETO 3: Ciudad en la que vivir, trabajar y disfruta

**Una ciudad atractiva para sus gentes lo será también para sus visitantes**

Si Errenteria no es capaz de retener a sus propios habitantes no será capaz de atraer a visitantes del exterior o, dicho en otros términos, lo que hace atractiva Errenteria para su gente la hace necesariamente atractiva para las personas visitantes.

Las iniciativas económicas y las personas tienen más oportunidades que antes para elegir en donde quieren localizarse; atraer la atención es cada vez más difícil. En el futuro los lugares que atraerán personas y proyectos de interés serán aquellos que ofrezcan las condiciones ideales para el bienestar económico y personal.

El objetivo compartido es hacer de Errenteria un buen lugar para vivir, trabajar y visitar. Debe, por ello, ofrecer una buena calidad de vida, incluyendo un entorno saludable, atractivo y que ofrece una gama completa de servicios. Este último aspecto le permitirá, además, ejercer plenamente su rol de cabecera comarcal que junto con la actividad cultural y turística asegurarán los empleos requeridos para la vitalidad y el crecimiento del municipio.

**La rehabilitación de las viviendas una cuestión relevante para la calidad de vida**

La vivienda es una de las palancas determinantes a la hora de retener y/o atraer nueva población. Sin embargo, la dificultad de acceso a la misma aparece como otro de los ejes de problemáticas asociadas a la pérdida de atractivo del municipio como lugar de residencia. En este sentido, de la reflexión estratégica realizada se concluye necesario habilitar y/o facilitar de cara a los próximos años acciones para la mejora del acceso a la vivienda.

Eraikinen eta etxebizitza batzuen hornikuntzaren kalitatea da udalerrian bizi direnen ongizatean eragiten duen beste alorretako bat. Egoera horren eraginez, etxebizitza horiek hobetzeko eta zaharberritzeko neurriak hartu behar izaten dira.

### **Alde Zaharra eta Ibaia, bizitza-kalitatea hobetzeko elementu nagusiak**

Errenteriak intereseko eremu garrantzitsuak eskaintzen ditu gizartea, merkataritza eta kultura berritzeko proiektuak garatzeko, hau da, Alde Zaharra eta ibai-ingurua. Hala eta guztiz ere, eremu horiek ikuspegi desberdinetatik esku hartu behar dira erakargarritasuna eta bizigarritasuna bermatu nahi baldin badira. Hain zuzen ere, esku-hartze horiekin, eraikitako ondarea eta hiri-altzariak hobetu behar dira, eta eremu publikoa antolatu eta ondareari balioa handitu behar zaio.

### **Merkatarientzako, ostalarientzako eta ekintzai-leentzako “ekosistema” egokia**

Merkatarientzako, ostalarientzako, ekintzaileentzako eta abarrentzako ekosistema egokia osatzen ahalegintzea da helburua, betiere, bi eremuetan, Alde Zaharrean eta ibai-ondoan, hiriak izan duen eraldaketak txundituta utz ditzan eta eraldaketa horretan eragile aktibo gisa parte har dezaten.

### **Euskaraz bizi, gozatu eta lan egin ahal izatea**

Errenteria bizitzeko hiri gisa konfiguratzeko garaian, beharrezkoa da euskaraz bizi ahal izatea. Euskaraz ez dakien jende asko baldin badago ere, beharrezkoa da batez ere haurren eta gazteen artean erabilera sustatzeko ahaleginak sendotzea.

La calidad edificatoria y equipamientos de algunas construcciones de viviendas es otro de los aspectos que influyen en el bienestar de quienes residen en el municipio. Esta situación obliga a adoptar medidas de mejora y rehabilitación de estas viviendas.

### **El Casco Histórico y el Río, elementos centrales para mejorar la calidad de vida**

Errenteria ofrece importantes espacios de interés para el desarrollo de proyectos de revitalización social, comercial, cultural, como son el Casco Histórico y el frente fluvial. Estos espacios, sin embargo, deben ser objeto de intervención desde distintas perspectivas si se quiere asegurar su atractivo y vitalidad. En efecto, estas intervenciones han de conllevar la mejora del patrimonio construido, del mobiliario urbano, la ordenación de los espacios públicos, la revalorización de su patrimonio.

### **Un “ecosistema” favorable para comerciantes, hosteleros y personas emprendedoras**

Se trata de centrar los esfuerzos en configurar un ecosistema favorable para comerciantes, personal hostelero, personas emprendedoras... para que se vean seducidos por la transformación de la ciudad en ambos ámbitos, Casco Histórico y el frente fluvial, y participen al mismo tiempo en dicha transformación como agentes activos.

### **Poder vivir, disfrutar y trabajar en euskara**

A la hora de configurar Errenteria como una ciudad para vivir es preciso posibilitar que se pueda vivir en euskara. Si bien hay una proporción importante de personas que no conocen el euskara y que es preciso intensificar los esfuerzos orientados al fomento de su uso particularmente entre la población infantil y juvenil.

## 4. ERRONKA: Eraldatutako eta dibertsifikatutako ekonomia duen hiria, enplegua sortzen duena eta gizarte arloko enpresa-ereduak bultzatzen dituen

### Ekimen ekonomikoetarako eta enplegua sortzeko lurralde emankorra

Azken bi hamarkadetan aldaketa nabarmena gertatu da euskal ekonomian. Hain zuzen ere, ekonomia industrialetatik eta ondasunen ekoizpenetan zentratutako ekonomietatik ezagutzaren eta zerbitzuen ekoizleak diren eta osagai fabrikatu gutxiago duten ondasunen ekonomietara egindako trantsizioa da. Aldaketa hori bere horretan egindako prozesua da eta ekonomia bakoitzak lan ditzakeen ekoizpen-jardueren konbinazioa mugatzen du, baliabideen arabera.

Ekoizpenaren eta enpleguaren igoera elkarrekin doaz eta ekoizpenean hobekuntzak txertatu behar dira. Prospekzio-azterketa guztiek iradokitakoaren arabera, balio erantsiari dagokionez jokaera ona dutenak izango dira etorkizun handieneko eskualdeak. Hori dela eta, Errenteriak berrikuntza eta ezagutza handiko jardueren aldeko apustua egin behar du. Gainera, jarduera horiek eskaera-potentzial handia izan beharko dute datozen urteetan (bai industria-sektorean, bai hirugarren sektorean).

Errenteria enplegua sortzeko, berezko enpresa-ekimenak eta kanpotik datozenak gauzatzeko, eta orain eta etorkizunean lan egin nahi duten pertsonentzako udalerrri emankor bihurtzea da helburua.

Horrek esan nahi du, hasteko, udalerriko bizikidetzaren eta enpresa-sarea indartzearen alde egin behar dela, industria-sektorea ahaztu gabe.

## RETO 4: Ciudad con una economía transformada y diversificada, generadora de empleo e impulsora de modelos empresariales sociales

### Territorio fértil para las iniciativas económicas y la creación de empleo

En las dos últimas décadas se ha producido un cambio importante en la economía vasca que supone la transición desde las economías industriales y centradas en mayor medida en la producción de bienes hacia las economías del conocimiento y productoras de servicios, así como de bienes con un menor componente fabril o manufacturero. Este cambio es un proceso en sí mismo en el que cada economía va delimitando la combinación de actividades productivas que pueda abordar, de acuerdo con sus recursos.

El aumento de la producción y del empleo debe asociarse e incorporar mejoras en la productividad. Todos los análisis prospectivos sugieren que las regiones con más futuro serán aquellas que se comporten bien en términos de valor añadido. Por ello se ha considerado que Errenteria debe apostar por actividades con alta intensidad de innovación y conocimiento y con potencial de demanda en los próximos años (tanto en el sector industrial como en el terciario).

